

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure enpresa gauzatzeko dugun ideia zerealak saltzeko denda bat sortzea da. Toki honetan mota ezberdinetako zerealak egongo dira eta mundu osoko zerealak salduko direnez, aukera supermerkatuetakoa baino askoz ere zabalagoa izango da. Dendan bertan zereal hauek jatea posible izango da, hau da, saltzeko modua ez da guk ezagutzen dugun bezalakoa izango (kaxa osoa saltzea). Horren ordez, gosaltzeko erabiltzen ditugun katiluak erabiliko dira produktua bezeroarengana eramateko. Gainera, web orri bati esker etxera eramateko aukera edukiko dute gure bezeroek.

Enpresa hau hiri batean kokatzea ideia ona izango litzateke, nahiz eta oso handia ez izan; adibidez, Donostian. Behin hiria aukeratuta, aukera aproposena zona trantsitatu bat aukeratzea da, horrela jende gehiagorentzat eskuragarria izateko: erdialdea. Bertan kokatuta, jendeak denda bisitatuko duela ziurtatzen duzu, gutxienez jakinminarengatik bada ere. Beste aukera bat zentro komertzial batean kokatzea da. Familia asko joaten dira toki hauetara egun pasa; gainera, denda asko egoten direnez, jendea hara dirua gastatzeko intentzioarekin joaten da. Beraz, toki oso aproposa izango litzateke.